

NEVADAS. DEL 26 DE FEBRERO AL 1 DE MARZO

Desde el 26 de febrero hasta el 1 de marzo de 2004 se produce una entrada de aire polar, con abundantes e intensas nevadas y chubascos tormentosos con granizo. La cota de nieve desciende desde los 500-600 m a primeras horas del jueves 26 de febrero, hasta los 200-300 m a lo largo del día, aunque a últimas horas vuelve a ascender hasta 400 m. Durante el viernes, sábado y domingo se mantiene en torno a 100-200 m, nevando ocasionalmente, aunque sin cuajar al nivel del mar. El lunes 1 de marzo, se siguen produciendo nevadas durante la primera mitad del día, más débiles que los días anteriores, pero con cota de nieve al nivel del mar. Por la tarde cesan las precipitaciones, dándose por finalizado este episodio.

Tras las intensas nevadas que se producen a lo largo de todo el episodio, en numerosos puntos del interior, especialmente en Álava, se acumulan más de 50 cm de nieve, y en zonas de montaña el espesor alcanza el metro de nieve.

El 26 de febrero la situación sinóptica se caracteriza por la formación de una borrasca al norte del Golfo de Bizkaia con un sistema frontal asociado. A medida que transcurre la jornada, la borrasca se va desplazando hacia las costas vascas, provocando la entrada en el País Vasco de toda la nubosidad asociada a dicho sistema frontal, empujada por vientos del noroeste. Tras el paso del sistema frontal, se origina un flujo del norte con la llegada de una masa de aire muy frío (ver figuras 2.1 y 2.2). De esta forma y con la inestabilidad existente en altura, siguen generándose masas nubosas y núcleos tormentosos en el mar Cantábrico, que van desplazándose y reactivándose al entrar por la costa.

Las temperaturas del nivel de 850 hPa están comprendidas entre -5 y -8 °C a lo largo de todo el episodio (ver figuras 2.3 y 2.4) y en el nivel de 500 hPa en torno a -35 °C (ver figuras 2.5 a 2.6). Esta distribución de temperaturas junto con la inestabilidad en las capas altas, sitúa la cota de nieve por debajo de los 400 m.

ELURTEAK. OTSAILAREN 26TIK MARTXOAREN 1ERA

Otsailaren 26a eta martxoaren 1a bitartean, aire polarra sartu zen, eta berarekin batera elurte handiak eta indartsuak eta baita ekaitzak txingorrarekin ere. Otsailaren 26an, osteguna, goizean elur-kota 500-600 m-ra egotetik, egunean zehar 200-300 m-ra jaitsi zen, azken orduetan berriz ere 400 m-ra igotzeko. Ostiralean, larunbatean eta igandean, elur-kota 100-200 m inguruan mantendu zen, itsas mailan ere elurra egin zuelarik, baina zuritu gabe. Martxoaren 1ean, astelehena, egunaren lehen zatian oraindik ere elurra egiten jarraitu zuen, baina aurreko egunetan baino gutxiago, eta elur-kota itsas-mailan mantendu zen, prezipitazioa botatzeari utzi eta pasarte amaitutzat eman zelarik.

Elurte indartsu hauen ondorioz, barnealdeko leku askotan, Araban batez ere, 50 cm elur baino gehiago pilatu zen, mendialdean metro batera heldu zelarik.

Otsailaren 26ko egoera sinoptikoaren arabera, Bizkaiko golkoaren iparraldean depresio bat kokatu zen, fronte-sistema bat lagun zuelarik. Egunak aurrera egin ahala, depresioa euskal kostalderantz hurbiltzen joan zen eta, ondorioz, fronte-sistema horri lotutako hodeitza osoa Euskal Herrira sartu zen, ipar-mendebaldeko haizeak bultzatuta. Fronte-sistema pasa ondoren, aire-masa oso hotz bat heldu eta ipar-fluxua sortu zen (ikus 2.1 eta 2.2 irudiak). Honela, eta goiko geruzetako ezegonkortasunaren eraginez, Kantauri itsasoan hodei-masak eta ekaitz-guneak sortzen eta mugitzen joan ziren, beti ere kostaldean sartzerakoan indarra hartzen zutelarik.

850 hPa-eko tenperatura -5 eta -8 °C artean egon zen denbora-tarte osoan zehar (ikus 2.5 eta 2.6 irudiak). Tenperaturaren banaketa eta goi geruzetako ezegonkortasuna zirela medio, elur-kota 400 m baino beherago mantendu zen.




Figura 2.1. Presión al nivel del mar y frentes. 26 al 28/02/2004 a las 12 UTC.
 2.1 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak, 2004/02/26tik 28ra, 12etan UTC.




Figura 2.2. Presión al nivel del mar y frentes. 29/02/2004 y 01/03/2004 a las 12 UTC. 2.2 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak, 2004/02/29 eta 2004/03/01, 12etan UTC.




Figura 2.3. Geopotencial e isotermas a 850 hPa. 26 al 28/02/2004 a las 12 UTC.
 2.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-etara, 2004/02/26tik 28ra, 12etan UTC.




Figura 2.4. Geopotencial e isotermas a 850 hPa. 29/02/2004 y 01/03/2004 a las 12 UTC.
2.4 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-etara, 2004/02/29 eta 2004/03/01, 12etan UTC.




Figura 2.6. Geopotencial e isotermas a 500 hPa. 29/02/2004 y 01/03/2004 a las 12 UTC.
2.6 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 hPa-etara, 2004/02/29 eta 2004/03/01, 12etan UTC.